

NEMESIO ETXANIZ ETA BENITO LERTXUNDIREKIN KANTA BERRIAZ

Ez zituen batere gaizki aukeratu Joan Mari Torrealdaik bere solaskideak, orduko kantagintzaren nondik-norakoak aztertzeko garaian. Bietan gazteenaren lana soberan ezagutuko duzuelakoan, Nemesio Etxanizek bere bizitzan egindako guztiari buruz zer edo zer azaltzera noa. Izan ere, erantzunkizun handiak izango zituen apaiz bezala, beharbada, baina elizgizon honen inguruan irakurritakoak irakurrita, euskal kultur eragile bezala are handiagoak hartu zituela esatera ausartuko naiz. Euskarari eremu berriak eskaini nahi izan zizkion idazle apaiztu gisa agertzen zuen Iñigo aranbarrik "Gure mendea" liburuan, eta iruditzen zait hala behar zuela izan. Dena den, idatzi zituen olerki, ipuin, antzerki, irratirako gioi eta beste alde batera utzirik ere, Manterola, Azkue eta Aita Donostiaren kantutegietatik haratago euskal letrak munduko doinuekin lotzen egin zuen eginahala ezin utzi aipatu gabe, Nemesio Etxaniz izan baitzen, 50eko hamarkadan zehar jada, euskarazko tango, fox-trot, txa-txa-txa, samba edo pasadobleak sortu zituena. Horregatik maite zuten hainbeste 60ko hamarkadako kantari berriek...

FITXA TEKNIKOA

Gaia: Nemesio Etxaniz eta Benito Lertxundi abeslariari elkarrizketa

Titulua: Gaurko Kantua Euskal Herrian

Egilea: Joan Mari Torrealday

Data: 1969ko irailak 21

Aldizkariaren zenbakia: 342

Zein orrialdetan: 12

Luzera: 5.744 karaktere

GAURKO KANTUA EUSKAL HERRIAN

Elkarrizketa hau eratzeko Nemesio Etxanizengana lehenengo eta Benito Lertxundirengana gero joan naiz. Galdera batzuk berdinak egin dizkiet bie. Erantzunak? Zuek ikus. Biengana joatea interesgarri iruditu zait, fenomeno beraren bi ikusmolde erakus baidezaizkigukete.

-Ba dakit, Nemesio, zuk euskal kantu berrian parte hartu zenuela.

-Bai, Mari Lourdes Iriondori aurrerapidea eman nion. Eta hasierako "Ez dok amairu"-koen bileretan izan nintzan.

-Baina zuk ba dituzu zeure kantuak ere.

-Halaxe da. Eta hauetatik asko aurretikoak dira. Esango dizut: 51ean argitaratu nuen "Kanta-kantari". Bilduma hontan azaltzen diranetarik ba dira lehendik eginak, gerra ondoren. Zergatik egin nituen? Erderazko kanta berriak sartzen hasi ziran eta pentsatu nuen erderazko kantuen moda zabaltzen bazan, erdera jabe egingo zala.

-Artean ez al zan euskeraz abesten?

-Nola ez, baina kanta berririk eta modakorik ez batere, Iparagirrenak eta hola.

-Eta zuk ze kantu-mota egin zenuen?

-Danetik: txotis, pasodoblea, tangoa, rumba, txa-txa-txa...

-Azken urteotan entzun ohi ditugun kanta hauek, zure ustez, mesede handia egin al diote Euskal Herriari?

-Kantuak mitinak baino lan gehiago egin du gure gauzetara zaletzeko.

-Eta gainera, herriak dana onartzen du, ezta?

-Ez da seinale ona. Nobiziaduan gaude.

-Zuretzat kanta berriaren joera nagusia zein da?

-Protesta. Baina batzuk diotenez protestari izatea erreza da, gogotik kobratzen dan artean.

-Kantarien akats bat, Nemesio?

-Imintziorik-eza, jestu-falta. Batzuk kantatu bakarrik egiten dute. Lotuta ikusten ditut gitarrarekin. Ez diote kantuari kanta berriaren estilorik ematen.

-Eta letra?

-Letra asko arlosteak dira, ondo josi eta lotu gabekoak. Letra eskasak (eskasagoak erderazkoak, hori bai).

-Nolako sendagaia jarriko zenioke zuk?

-Olerkarien eta kantarien batasuna. Hobe izango litzake, letra, gai dan bati eskatzea.

-Ondo da, Nemesio.

Etxanizek bultzada handia eman dio euskal kantoari. Kontuan euki dezagun, justiziaz, bere garaiak, pondu hontan, oraingoak baino aldapatsuagoak zirala. Ikus: hitzaldi bat, euskal kanto berriaz, Donostiako "círculo cultural"-ean eman zuan. Nola hartu zioten? Batzuk parrez lehertzen eta besteak euskera zikintzea zala-ka. Nemesiok esaten dit: "Hola hartu zidaten: batzuk eskandalizatu eta besteak parre".

Euskal kanta berri honen hasiera, bakarlarien artean, Labe-gueriek markatzen du.

Gero, han-hemenka, beste asko joan zaizkigu azaltzen. Hauen artean, "Ez dok Amairu" taldea. Benito Lertxundi taldekide da hasieratik.

-Noiz hasi zan "Ez dok amairu"?

-65-ean.

-Nortzuk hasi zinaten?

-Kantarien artean, Mari Lourdes, Laboa, Villar, Lekuona eta ni.

-Zure iritzian, Benito, euskal kantuan joera nagusiak zeintzuk dira? Bereiz ditzagun joerok: doinua-letra. Doinu alde-tik: ematen duzuten kantua euskalduna da ala inportazio hutsa?

-Geurea dala uste dut. Benetan. Kanpoko influentzia asko dabil. Baina kutsu hori ez dugu behin ere erabat kenduko. Bestalde, guk herrikoi deitzen dugun kantua ere kanpoko da, gregorianoaren influentzia du: "Txori erresiñola", "Aita saldu

nazu". Baina gregoriano bera entzunik Alemanian, Frantzian, eta abarretan, hauen erantzuna desberdina izan da.

-Eta nola ikusten duzu itzulpen hutsa egitea kantuan?

-Hasieran ondo dago besteen errepertorioekin (Beatlesenak edo Los Bravosenak) ibiltzea. Baina guk sorkuntza batera joan behar dugu, ez baigaude besteen mailan. Sortzaileen arazoa ez baidugu egina.

-Eta hitzak dirala-eta, zer esango zenuke? Osoki ikusita, onak ala txarrak dira?

-Onak jeneralean. Esate baterako, gure maitasun kantua sakona da. Egin dugun protesta-kantuak ba du benetakotasuna, zintzotasuna.

-Baina literatura bezala epaituaz ez al dira batzutan letra hoiek errenak eta traketsak?

-Ez dakit, bada.

-Baietz uste dut, behin baino gehiagotan. Horregatik bat egin behar dute, bai, olerkariak eta kantariak, gure sorkuntza aurrera egiteko. Ez?

-Ni askotan noa olerkariengana, batengana, bestearengana. Eta zenbait kantariengan joera bera ikusten dut. Beharrezkoa da, izan ere. Ez hori bakarrik. Ni konbentzituta nago beste kantarien kantua abesten ere hasi behar dugula, geuretik ateratzeko, aberasteko, bestela geure molde hutsetan zaharkatuko gera.

-Euskal kantua ez da kanpora atera. Zergatik da? Kategoriarik ez du ala ez da komertziala?

-Ez da kategori-arazoa. Jakina, kategori unibertsalik oraindik ez du. Eta goiz da eukitzeko. Baina, halare, zabaltzen diran kantuen haina ba da gurea ere, eta gehiago. Maiori-hizkuntza ez da gurea, hor dago koska.

-Nemesiok esanen dizue imintzio-falta duzutela. Zer erantzungo zenioke?

-Tematikagatik dala. Gaia halakoa dalako.

-Ez ote dago beste arrazoi bat ere? Alegia, zuek ibiliaz, kantatuaz, molde jakin batzuk jarri dituzutela?

-Ba liteke zulo batetik atera ezinean arkitzea. Baina ikusi egin behar litzake ea hortarako jajorik ba ote dagoen, berez. Ez bada sortzen, zer nahi da?

-Benito, euskal kantuan ba al duzute profesionalismurik?

-Begira: pausu handia eman da. Ez zala posible ere uste genuen. Eta horren kontra altxatu naiz ni. Pixka bat nabarmentzen dan kantariak ba du, gaur, kantu-saioetatik bizitza.

-Eta zu bakarrik al zera profesionala?

-Profesional liberatua bai. Orain. profesional "karnetdunak" anitz dira. Eta ateratzen ari diranak, beste asko.

-Profesionalismuaren alde on bat?

-Kantuan sakontzea, hobeagotzea.

-Arrisku bat?

-Lanik gabe geldi gindezke..

Olerkariarena birlandatuaz, lau aizeetara aldarrika dezagun:

"Euskal kantua,
ialgi adi plazara".

Joan Mari Torrealdai